

BERMEON ZER?

Bermeo	16
Maiatzak	17
	18

aboneta abentlen
aboneta abentlen
abuxa adernazto
afa-afa afrole afrole nle
aidxena ad
adubeta aldaude
alkamen aldaude
abamiku akel ajata
amap amap extlen
amap alabaxl
almonadie
almonadie almonadie

ZINEA

NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo zabaltzen APPea eta sare sozialetan zabalduko da.

SARRERAK:

salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Zapato eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

NAGUSIENTZAKO FILMAK:

- El Contable 2
- La Buena Letra
- Presunción de Inocencia
- Misión Imposible: Sentencia Final

Zapato eta domeketan: 19:30ean

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 19:00etan eta 21:30ean

UMEENTZAKO FILMAK:

- La Luz de Aisha
- Kayara (euskaraz)
- Una Noche en Zoopolis

Zapato eta domeketan: 17:00etan

*OHARRA: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak diranean. Arrain Azokaren asteburuan ez da zinemarik egongo.



01 Eguena
Hermanuetako
Kapillen
19:00etan

MUSIKA
KONTZERTUAK
Horzdun + Meltem

Sarrera: 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkarte**



03 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLAK
ESKUBALOIA

Kadete neskak: Urdaibai Burgoa – San Adrian Loyola

Kadete neskak: Urdaibai Garbola – Berango

Jubenil Mutilak: AUG – Urduliz

Kadete Mutilak Urdaibai Aritzatxu – Urdaneta B

FUTBITO

Biara Bermio A- Iturriondo Sidreria Loiu A



Bermeoko Kafe
Antzokian
22:00etan

MUSIKA
KONTZERTUAK Kokein + Izena
Sarrera: 6 € (bermeokokafeantzokia.com),
10 € leihatilan.

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**



03 Zapatua
04 Domeka
Artza frontoian

TXAPELKETA
BERMEOKO VI. WARHAMMER
40.000 TXAPELKETA

Estatu mailako talde onenek parte hartuko dute.

Antolatzailea: **Bermeoko Rol eskola elkarte**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



04 Domeka
Areneko
kiroldegian
Goizean

KIROLA
GIMNASIA ERRITMIKOA
Bizkaia amateur txapelketa
B mailako eskolarren banakako 2. finala

07 Eguaztena
Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00-20:00

TAILERRA
'MENOPAUSIATIK
PLENOPAUSIARA' TAILERRA
Bigarren saioa.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Bermeen zer?

08 Eguena
Gabilondo
Farmazian
19:00etan

HITZALDIA
"Hileroko kopak: aukera
osasungarri eta jasangarria"
Hizlaria: Marta Martinez emagina.
Izen-ematea: 94-688 01 34
Antolatzailea: **Gabilondo Farmazia**



Eleizalde
Ikastolan
17:30ean

FAMILIA ESKOLA
"Lehen kontsumoak eta nerabeak:
prebentzioa eta komunikazio
eraginkorra nerabezaroan"
Aurretiaz izena eman behar da.
Informazioa: 675 028 018 eta 94-617 91 58
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

09 Barikua
Gizarte eta
Kultura Etxeko
1. solairuan
17:30ean
Nestor
Basterretxea
aretoan
19:00etan

MUSIKA
UMEENTZAKO SAIOA
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

DOKUMENTALA
"ARANTZAZU 36 CM, 5 MENDI, HERRI 1"
Sinopsia: Fraide frantziskotarrek 500 urtetik gora daramatzate Arantzazun, Andra Mariaren irudia aurkitu zenetik. Beraien motibazio erlijiosotik ondare immaterial baliotsua eman diote herriari, frantziskotarrentzat Anaidia, komentua ez ezik, gizartea ere badelako, Euskal Herria, mundua. Horregatik ari dira herrigintzan, modu etengabea, berrikuntza sustatuz, ausardiaz. Arantzazuko frantziskotarrekin lotzen ez baditugu ere, gaur egun oso gureak eta barneratuak ditugun hainbat altxor eman dizkigute. Horiek ezagutzera ematea beharrezkoa da, gure historiaren eta izanaren parte baitira. Arantzazu ez litzateke gaur dena izango herririk gabe eta herria ere bestelakoa litzateke Arantzazu gabe. Iñaki Luzarraga dokumentaleko produktore exekutiboak aurkeztua. Sarrera: doan.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

EKITALDIA
BINGOA

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkartea**



10 Zapatua
Almikan
10:00-13:00



Arrantzaleen
Museoan
12:00etan

TAILERRA
AGROEKOLOGIA FEMINISTA

Gaur egungo nekazaritzako elikagaien sistema konbentzionalen aurrean, elikadura-subiranotasuna eta agroekofeminismoari buruzko eztabaida sorraztea dute helburu, zenbait esperientzia eta bizipen jaso ahal izateko. Gainera, sasoiko barazkiz betetako pasta integrala eta ekologikoa, eta saltsak egingo dituzte. Trebatzailea: Txaramela koop. txikia
Izena emateko: berdintasuna@bermeo.eus / 688 63 84 49
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

MUSIKA
MIKEL URDANGARIN
KONTZERTUAN

Ahots eta gitarra kontzertu akustikoa. Publikoak abeslariarekiko hurbiltasunaz gozatu ahal izango du, kontzertu intimo batean, eta bere ibilbide zabaleko kantuak errepasatu. Euskaraz. Doan. Erreserba beharrezkoa da. Informazioa eta erreserbak: <https://musekintza.eus>
Antolatzailea: **Musekintza**



Sancti Spiritus
egoitzan
12:00etan

DANTZAK
DANTZAZ BLAI taldearen saioa

Hermanuetako
Kapillen
13:00etan

MUSIKA
FLAMENKO EGUNA
La pulga eta lagunak
Gipsy queens

Sarrera: 10 €
Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkartea**



11 Domeka
12:30ean:
Portuzarreko
barandan
Ondoren:
Lameran

EKITALDIA
**NAZIOARTEKO
DANTZA EGUNA
OSPATZEKO EKITALDIA**

DANTZA ERAKUSTALDIA
Antolatzailea: **Ross dantza eskola**

13 Martitzena
Musika Eskolan
17:30ean

MUSIKA
NIRE LEHEN KONTZERTUA
Musika Eskolako prestakuntza mailako ikasleak.
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

14 Eguaztena
Sancti Spiritus
Zaharren
egoitzan
17:00etan

MUSIKA
**Coro Maikaren
ekitaldia**

15 Eguena
Arrantzaleen
Museoan
18:00-20:00

HITZALDIA
**GURE ARRANTZALEEN
ARRANTZA; "IKUSI-UKITU-
ERABILI"**

Arrain Azoka eta Nuevo Anchústegui bateratuz, Juan Antonio Apraizen argibideei jarraituz, gure kostaldean erabilera arrunteko arrantza-aparailuak ikusi, ikutu eta erabiliko ditugu. Euskaraz. Doan. Erreserba beharrezkoa da.
Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus
Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



15 Eguena
Goiko plazan
19:00etan

EKITALDIA
EUSKARALDIA
Hasierako ekitaldia

Euskaraldiaren hasiera ekitaldia.
Maiatzaren 15etik 25era hainbat ekitaldi egongo dira.
Antolatzailea: **Bermeoko Euskaraldiko Batzordea**



17 Zapatua

**LGTBI FOBIAREN
AURKAKO
NAZIOARTEKO
EGUNA**

Areneko
kiroldegian

KIROLA
FUTBITO
Biara Bermio A- Zuentzat




18 Domeka

**ITSAS SEKTOREKO
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA**

21 Eguaztena
Euskal Gunean
18:30-20:30

BERBALAGUN
MINTZODROMOA

Ezinbestekoa da izena ematea; azken eguna maiatzaren 14a.
Izena emateko: <https://labur.eus/okrvbd4r>
edo 607 609 580 telefonoan (whatsapp ere).
Antolatzailea: **Bermeoko Berbalagun**



22 Eguena
Sagrado
Corazon
ikastetxean
Egun guztian

JAIA
SANTA JOAKINA JAIA
Sagrado Corazon ikastetxeko jaia.
Antolatzailea: **Sagrado Corazon ikastetxea**

Arrain Azoka

[illegible]

Euskotrenen zerbitzu berezia egongo da.



Arrain Azoka

Bermeo	16
Maiatzak	17
	18

A group of people in traditional Chinese clothing, including blue and green dresses and a man in a brown robe, are performing a dance or festival activity in a street. A large, ornate green parasol is held by one of the performers. The background shows a street with traditional Chinese buildings.

12:00: I. Arrain Azoka Jai Alai Artza Frontoian. Bermeoko Zesta Punta Eskolak antolatuta.

12:30: Bermeeko erraldoiak, Lameran eta Portuzarran.

12:30: Erroxapeko Martxa ibiliko da Lamera eta Portuzarra dirotzen.

EGUNEROKO EKINTZAK

Arrain salmenta-itxura Kofradia zaharrean

Barikuan: 11:30🕒, 13:30, 17:30🕒 eta 19:30
 Zapatuan: 11:30🕒, 13:30, 17:30🕒 eta 19:30
 Domekan: 11:30🕒, 13:30

**Irtenaldiak Hegaluze itsasontzian**

Sarrera: nagusiak 14€, umeak 9€
www.hegaluze.com

Irtenaldiak Izaro ikustera**Taho itsasontzietan**

barikuan eta zapatuan 13:30ean eta 17:30ean.
 Umeak doan, 12 urte arte 4€, nagusiak 7€ (txakolina eta gilda barne)
www.tahoboatrental.com

Asteburu osoan Arrantzaleen Museoko sarrera doan izango da.

Ordutegia: Bariku- zapatuan: 10:00-19:00 domekan: 10:30 -14:30

GUNE SOLIDARIOA

(aurten Lameran, azokan bertan)

Atuna marmitakoan edo erreta jateko aukera izango dugu. Herriko kultur, kirol eta gizarte talde, ikastetxe eta gainerako partaideei esker egingo da ekintza hau. Bertan lortuko den dirua honako ekimen honetara bideratuko da: Osakidetzak estaltzen ez dituen 6 eta 12 urte arteko umeen osasun tratamenduak egitera.

ORDUTEGIA:

Barikuan: 13:00 - 17:00 / 19:00 - 21:00

Zapatuan: 13:00 - 21:00

Domekan: 13:00 - 16:00



GUNE GASTRONOMIKOA

MAIATZAK 16 (barikua)

12:00: Arrain Azokari harrera eta hasiera ofiziala. Ostean, Hegaluze Saria emango da.

12:45: Camus enpresaren aurkezpena.

17:30: Umeentzako "Bermeo Tuna Dastaketa: Tunido desberdinak ezagutzen".

5€ Antolatzailea Bermeo Tuna World Capital. Sarrera salgai aurretias turismo bulegoa.

18:00: Arrain Azoka pintxo lehiaketa: profesionalen eta amateur-en finala.

**MAIATZAK 17 (zapatua)**

11:15 - 11:40: Kostako enpresaren aurkezpena🕒

11:45 - 12:10: Umeentzako "Bermeo Tuna Dastaketa: Tunido desberdinak ezagutzen".
 5€ Antolatzailea Bermeo Tuna World Capital. Sarrera salgai aurretias turismo bulegoa.

12:20 - 13:00: Nagusientzako "Bermeo Tuna Dastaketa: Tunido desberdinak ezagutzen".

10€. Antolatzailea Bermeo Tuna World Capita. Sarrera salgai aurretias turismo bulegoa.🕒

MAIATZAK 18 (domeka)

11:15: Juan Antonio Apraizen (Koiote) aurkezpena "Gure arrantza itsasotik mahaidxera".

12:15 - 12:45: Bokarten garbiketa Karmelo Toja enpresaren eskutik🕒

13:00: Bermeoko Erraldoi Konpartsaren sari banaketa.

Programa hau behin-behinekoa da,

PROGRAMA EGUNERATUA:

www.bizibermeo.eus/arrainazoka

📍 @bermeokoarrainazoka 📷 bermeokoarrainazoka 📺 Arrain Azoka Bermeo

🕒 Euskaraldia: Itzulpena gaztelaniara, Arrain Azoka Bermeo YouTube kanalean.

Babesleak:



Kolaboratzaileak:



Partaideak:



ALAKRANA
www.alakrana.com
Tel.: 94 633 49 06



ALBACORA S.A.
www.albacora.es
Tel.: 94 618 70 00



ANCHOAS Y BOQUERONES ROYO
www.anchosadebermeo.com
Tel.: 94 618 64 29



ARROYABE
www.arroyabe.es
Tel.: 94 618 66 67



CAMPOS KONTSERBAK
www.clubcampos.com
Tel.: 94 688 05 00



CAMUS
www.dulcescamus.com
Tel.: 942 343429



CONSERVAS CUSUMANO
www.cusumano.es
Tel.: 94 688 16 50



CONSERVAS SERRATS
www.serrats.com
Tel.: 94 618 72 80



ETXEKO MAKAILLOA
Tel.: 94 625 73 76




GASTRONORTE ALIMENTACIÓN S.L.
www.gastrocash.es
Tel.: 94 670 74 50



KARMELO TOJA
www.karmelotoja.com
Tel.: 630 048 219



KEIA KETUAK
www.keia.es
Tel.: 94 631 45 55



KOFRADIA ITSAS ETXEA
www.kofradia.eus
Tel.: 943 45 17 82



KOSTAKO
www.kostako.eus
Tel.: 94 661 10 27 / 608 95 34 14



MAÑEKO S.KOOP
www.mañe.eus
Tel.: 94 384 52 00



MARISCOS RUE DEL PERCEBE
www.despiertatussentidos.com
Tel.: 605 45 53 78



URDAIBAI KONTSERBAK
www.conservasurdaibai.com
Tel.: 94 618 66 58




CONSEVAS ZALLO
www.zallo.com
Tel.: 94 618 63 18

23 Barikua
Gizarte eta
Kultura Etxean
10:00-12:00



Sagrado Corazon
ikastetxean
Arratsaldean

Nestor
Basterretxea
aretoan
19:00etan



Erroxaperen
lokaletan
19:00etan

TAILERRA

EMAKUME NAGUSIAK ETA SEXUALITATEA

Emakume izatearen definizio tradizionala berregin gura da tailerraren bitartez, bakoitzak berea, gorputz-aniztasun eta plazererako duen gaitasunetik, jendartearen duen rol ezberdinen hausnarketara. 60 urtetik gorako emakumeentzat.

Trebatzailea: Ana Valles Renteria.

Izena emateko: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 63 84 49

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

JAIA

SANTA JOAKINA JAIALDIA

Danborrada, ikasleen dantzaldiak, zozketa solidarioa eta marrazki lehiaketaren sari banaketa.

Antolatzailea: **Sagrado Corazon ikastetxea**

FILM EMANALDIA

"OMBUAREN ITZALA"

Sinopsia: Filma pertsonaia gipuzkoar baten ingurukoa da, 1857an Zizurkilen jaio zen poeta-bertsolari handi baten ingurukoa; inprobisatzaile bikainen leinu luzearen parte izan zen. Pello Mari Otaño, gainera, euskal letren irudi bikaina izan zen, eta "linguae navarrorum"en berritzaile handia; hala esaten zioten gure lurraldea aurkitu zutenean lehen erromatarrek. Pertsonaiak gure historia komuneko urte garrantzitsuak bizi izan zituen; gerra karlistek eta, azkenean, foruen abolizioak gure ekonomia hondatuta utzi zuten, gazteek erbestera ihes egiten zuten edo emigratu egiten zuten masan. Errealitate hori hurbilekoa ere bada Argentinako diasporara lagundu zioten hainbat eta hainbat herritarrentzat. Patxi Bisquert filmaren zuzendariaren azalpenekin. Sarrera: doan

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

FILM EMANALDIA

"LA SONRISA DE MONA LISA"

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**



Bermeon zer?

24 **Zapatua**
Almikan
10:00-13:00

TAILERRA AGROEKOLOGIA FEMINISTA

Bigarren saioa.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Arrantzaleen
Museoan
12:00etan

IRAKURLEEN TXOKOA

"BURGOSKO AUZIA. IRAULTZA ETA BIZI!", Mikel Antza eta Adur Larrea

Komikia, baina, ez da epaiketaz soilik mintzo; heriotza-zigorrera kondenatutakoak ateratzeko egin ziren ahaleginak ere kontatzen dira (herri mailako mobilizazioak, nazioarteko presioa, kartzelatik ateratzeko saiakerak...). Komikiaren sorkuntza-prozesuaren dokumentaziorako, egileek elkarriketa ugari egin dituzte oraindik bizi diren epaitu, militante, abokatu eta abarrekin. Emaiza, 100 orriko komiki mardula, gibelean beste 40 bat orriko dossier bat gehitu zaiona, informazio osagarri gisara.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

MUSIKA


KONTZERTUAK Niña Coyote eta Chico Tornado + Silitia + Enbata Lorade

Sarrera: 6 € (bermeokokafeantzokia.com), 10 € leihatilan.

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**



Bermeoko Kafe
Antzokian
22:00etan



25 **Domeka**
Artza frontoian
10:00-12:00

KIROLAK

ATLETISMOKO HAUR OLINPIADAK

Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendua.

Frogak: altuera-jauzia, vortex jaurtiketa, korrika lasterketa oztopoekin eta 60 metro. Izen-ematea: ikastetxeetan.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala**
eta **Taraska Atletismo Taldea**



26 **Astelehena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
10:00-12:00

HITZALDIA

'EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK'

Hizlaria: Josune Renteria

Migrazio legearen azken moldaketaz ariko da hizlaria, eta kaltetuak izan daitezkeen emakume migratuen zalantzak argituko ditu.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



27 **Martitzena**
Irakaskintzako
karpan
19:30ean

MUSIKA

KONTZERTUA, 'KONBOAK'

Musika Eskolako ikasleen saioa.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



30 Barikua
San Frantzisko
Herri
Ikastetxean
Egun osoa

JAIA SAN FRANTZISKO HERRI IKASTETXEKO JAIA

Goizean, eskola barruko ekintzak eta jolasak
16:30etik 20:00etara, jaialdia familia eta ikasleekin batera: KIETB erraldoi txikiak, munduko gozoak, jolasak, musika, puzgarriak, zozketak...

Antolatzailea: **San Frantzisko Herri Ikastetxea**

Gizarte eta
Kultura Etxean
10:00-12:00

TAILERRA EMAKUME NAGUSIAK ETA SEXUALITATEA

Bigarren saioa.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Kabidxen
17:30ean

TAILERRA ZORU PELBIKOA EZAGUTZEN

Tailer teoriko-praktikoan pelbiseko muskulatura eta gorputz gune gisa duen funtzioa ikasiko dute, barruko eta kanpoko genitalen anatomia ezagutuko dute, eta disfuntzio fisiko eta sexualen zergatiak hobeto ulertuko dituzte.

18 urtetik gorako emakumeentzat.

Trebatzailea: Iratxe Erkoreka

Izena emateko: bermeokomf@gmail.com

Antolatzailea: **Bermeoko Mugimendu Feminista**



31 Zapatua
Talatik hasita
10:00-13:00



EKITALDIA LET'S CLEAN UP EUSKADI HONDAKINEN GARBIKETA KANPAINA

10:00etan Talako kantuan geratuko gara azalpen txiki bat emateko eta taldeetan banatzeko. Hasiera batean herriguneko lau leku garbituko dira:

- Tala eta Tonpoi ingurua
- Kanposantuko atzealdea eta Aritzatxu
- Baratz-Eder eta San martin auzoko berdeguneak
- Landabaso industriagunea

Bildutako hondakinak tipologiaren arabera sailkatuko dira (ontziak, beira, etab.) Gomendagarria da parte-hartzaileek botak eta eskularruak eramatea. Animatu eta etorri zeu ere, goiz ederra pasatuko dugu eta!

Antolatzaileak: **Ura Gara talde ekologista eta Bermeoko Udala**

Artza
frontoian
19:30ean



KIROLA BOXEO JAIALDIA

Zaletuen 8 borroka egongo dira.

Sarrera: 15 €

Antolatzaileak: **Urdaiboxing, Bermeoko Udala eta Bizkaiko Boxeo Federazioa**




Hermanuetako
Kapillen
21:30ean

MUSIKA KONTZERTUAK Reclusión + Peedoh + Urbangrind

Sarrera: 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkarte**



Bermeoko Kafe
Antzokian
22:00etan

MUSIKA KONTZERTUAK EzEzEz + Aposapo

Sarrera: 6 € (bermeokokafeantzokia.com),
10 € leihatilan

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**



SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA)
AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen
SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU)
GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

900.840.111

900.840.977

946.179.160

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZTION
ARDURA DA**



Kultur Zerbitzuak

UME TXIKIEN TXOKOA

Gizarte eta Kultura Etxean
Astelehenetik eguenera,
16:30etik 19:30era
Umeek arduradun batekin egon
beharko dute derrigorrean.

LUDOTEKA

6-11 urte bitarteko ume eta
gaztetxoentzat
Barikuak eta zapatuak,
17:00-20:00
Gizarte eta Kultura Etxean

BEKOPORTALE

0-5 urte bitarteko umeentzat
Gizarte eta Kultura Etzeko 1. solairuan
Astelehenetik barikura,
17:00etatik 19:00etara

MAIATZA ORDUTEGIA: 17:00 -20:00

2 ESKULANA PAPARREKO GLOBOEKIN	3 KONDAIREN EGUNA	9 JOKOAK KANPOALDEAN
10 JOKO KOOPERATIBOAK	16 ARRAIN AZOKA	17 ITXITA
23 EUSKARALDIA	24 GURE BIHOTZAREN TAUPADAK	30 IBIALDIA. RALLY BARREGARRIA
31 JAIA MERENDOLA		



**BEKO
POR
TALE**



MAIATZEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIKUA
5 PSIKOMOTRIZITATEA	6 MUSIKA JARDUERA	7 PSIKOMOTRIZITATEA	1 ITXITA	2 HAZIAK HAZTEN
12 PSIKOMOTRIZITATEA	13 JOLAS LIBREA	14 PSIKOMOTRIZITATEA	8 ADARRAK	9 HONTZA
19 PSIKOMOTRIZITATEA	20 JOLAS LIBREA	21 PSIKOMOTRIZITATEA	15 ESKUMUTURRAK	16 PERRETXIKOAK
26 PSIKOMOTRIZITATEA	27 JOLAS LIBREA	28 PSIKOMOTRIZITATEA	24 ORRI ESTANPAZIOA	23 MUSIKA JARDUERA
			29 IPUINAREN ORDUA	30 IKASTURTE AMAIARAKO FESTA

ASTELEHENETIK BARIKURA 17:00-19:00

Gizarte eta Kultura Etzeko 1. solairuan

kultura@bermeo.eus

946 17 91 57

BERMEOKO
UDALA

GAZTEENTZAKO JARDUERAK

BIRZIKLATUTAKO MUSIKA TRESNEN TAILERRA (TRAKAMATRAKA)

Maiatzaren 24an, Bermeoko Gaztelekuan. Ordutegia: 18:30-19:30
10 urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzendua.
Plaza kopuru mugatua.

Birziklatutako edo etxean eta ohiko moduan erabiltzen diren materialak erabiliz, musika-tresnak eraikitzekeo tailerra. Modu atseginean, gaztetxoek instrumentuen familiak ezagutuko dituzte, hala nola aerofonoak, membranofonoak, idiofonoak edo kordofonoak, eta instrumentuak egiteko oinarriak eta printzipio akustikoak ikasiko dituzte. Trakamatrakako tailerrak ez dira musika-jarduera soilak, trebetasuna, irudimena, ingurumen-kontzientzia eta sormena lantzeko bitarteko bat baizik.

Informazioa eta izen-ematea: www.gizbermeo.blogspot.com eta 688 819 950 (WhatsApp zenbakia). Plazak esleitzeko, izen-ematearen hurrenkera jarraituko da. Plazak guztiak betetzen badira, itzarote-zerrenda sortuko da.

KONTZERTU DIDAKTIKOA (TRAKAMATRAKA)

Maiatzaren 31n, Bermeoko Gaztelekuan. Ordutegia: 18:30-19:30
10 urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzendua.
Birziklatutako edo etxean eta ohiko moduan erabiltzen diren materialak erabiliz, musika-tresnak eraikitzekeo tailerra.
Informazioa: www.gizbermeo.blogspot.com eta 688 819 950 (WhatsApp zenbakia)



ERAKUSKETAK

BERHAZ BULEGOAN

Berhaz Bulegoko XLII. ERAKUSKETA

OANA PERJERU "ABRIENDO CAMINOS.

Paisajes desde el corazón"

Harremanetarako: 678 279 679 /oanaperjeru77@gmail.com

Bulegoko ordutegia:

Astelehena-eguzatena-barikua: 08:00-15:00

Martitzena-eguzena: 08:00-14:00 eta 16:00-18:00



ARRANTZALEEN MUSEOAN

Nuevo Anchustegi "Gure Señoriti"

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 19:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30

Astelehenetan itxita.

Erakusketak Ondarroako Nuevo Anchustegui ontziaren istorioa kontatzen digu. Euskal Herriko baxurako arrantza tradizionalaren garapenaren ordezkari, ontzia ondare material garrantzitsu modura aurkezteaz gain, erakusketak memoria immaterialean ere sakontzen du, eta Nuevo Anchustegui-n bizi eta lan egin zuten pertsonek lekukotasun eta esperientzietan murgiltzera gonbidatzen gaitu.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus / www.

bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa

BEHARGINTZA

Enpresak sortzeko ikastaroa

30 orduko prestakuntza + coaching-saio eskusiboa tokiko enpresaburu ezagun batekin.

BFAko enpresak sortzeko eta transmisiorako dirulaguntzetarako homologatua.

Data aurreikuspena: 2025eko maiatzaren 26tik ekainaren 3ra.

Formakuntza presentzialki eta streaming bidez eskainiko da.

Saio guztiak grabatuta egongo dira 48 orduz eskuragarri.

Zure negozio-idea abian jartzeko edo negozio baten transmisioan parte hartzeko prestatuTa dago ikastaro hau. Eduki praktikoak, benetako esperientziak eta banakako orientazioarekin.

Izena emateko edo informazio gehiagorako: 94-617 91 90/behargintza@bermeo.eus

KZ GUNEa

AURREZ AURREKO IKASTAROAk

Maiatzaren 8a eta 9a: 11:00-13:00.

"Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak" (gaztelaniaz). 4 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAk

Maiatzaren 5ean: 14:00-16:00

Maiatzaren 15en: 11:00-13:00

Zubiaur tar Kepa 26-28

1. solairuan (udal-azokan)

Tel.: 944033325

www.kzgunea.eus

tutor.bermeo@kzgunea.net

BERMEOKO ZESTA PUNTA ESKOLA



Astebururo dohainik zesta puntako Jai Alai partiduak egongo dira Artza frontoian, eskolako gaztetxoak, eta tarteka, eliteko partiduak.

Zatoz Jai Alaiatz gozatzera Bermeoko Zesta Punta Eskolaren eskutik!



ANTZERKI TAILERRA

Maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an.

Gizarte eta Kultura Etxean, 19:30ean



GIZ

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA:

familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua da. Doakoa eta isilpekoa.

- Noiz: astero: martitzen, eguazten eta eguenetan
- Ordutegia: 08:30-14:30
- Non: Gizarte eta Kultura Etxean, 1. solairuan, gazte ekimenak gelan
- 675 025 018/bermeoprebentzioa@etorkintza.org

BIDAIA TEKA

Mundu osoko gidak zure esku Aste Santuko bidaiak eta oporrak prestatzeko!
Bidaia giden 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpe kide txartelak, ISIC, ITIC...
INFO + www.gizbermeo.blogspot.com

LAN-ESKAIN TZEN HARPIDETZA ZERBITZUA

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688 819 950 zenbakira idatzi. Zerbitzuan alta emateko, 688 819 950 telefono-zenbakia gehitu behar da mugikorreko kontaktuen agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com webguneko eskaera-inprimakia bete.

JOSE ANTONIO EGIA UDALAREN MUSIKA ESKOLA



ATE IREKIAK: Maiatzaren 5etik 13ra ateak zabalik egongo dira. Irakasten diren tresnak ikusteko eta ezagutzeko aukera egongo da. Hartu hitzordua eta probatu: 94 617 91 56 / musikaeskola@bermeo.eus

MATRIKULAK: Maiatzaren 13tik ekainaren 9ra bitartean, matrikulak zabalik.

4 urtetik gorako herritarrentzat musika ikasteko aukera zabalik.
Ordutegia: 12:30-13:30/16:30-20:00



OLHUI Bermeo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua 2025-2026 Ikasturtea

OINARRIZKO LH ZIKLOAK:

- Sukaldaritza eta jatetxe-arloa
- Soldadura eta Galdaragintza

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 5etik 23ra
Ordutegia: 09:00-14:00
Atalde kalea, 8
Tel.: 94-617 91 75

BERMEOKO OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO UDAL INSTITUTUA
INSTITUTO MUNICIPAL DE FORMACION PROFESIONAL BASICA DE BERMEO

OLHUI BERMEO 2025-2026 Ikasturtea

OINARRIZKO LH ZIKLOAK
Oinarrizko LH-ko ta DBH-ko Graduatu tituluaren lortpena
CICLOS DE FP BÁSICA
Obtención del título de FP Básica y del Graduado en la ESO



AURREMATRIKULA: maiatzaren 5etik 23ra (9:00-14:00)
PREMATRICULA: del 5 al 23 de mayo (9:00-14:00)

Atalde kalea, 8 · Tfno.: 94 617 91 75 · olh@bermeo.eus



Bermeoko Haurreskola

2025-2026 ikasturterako izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 9ra arte, online eta aurrez aurre.
0 eta 2 urte bitarteko haur-eskola publikoak
doakoak izango dira guztientzat (2023-2024an jaiotakoak)

Informazio gehiago:

www.haurreskolak.eus
bermeo.bermeo@haurreskolak.eus
946 88 05 63

ATE IREKIAK:

haurren-eskola ikusteko aukera egongo da telefonoz hitzordua eskatuta (946 88 05 63)





Ekainean...

- San Juan jaiak
- Zinegoak
- Ikasturte amaierako jaia
- Eskalada tailerrak
- III. Bermeo Bizi Festa



Maiatzaren 15etik 25era
Eman izena Euskaraldian



**Ahobizi ala Belarriprest
izango zara?**

**Izen-emateko
azken egunak!** ►



www.bermeo.eus

